

noaua



**"SEGALARIEN ARTEAN
ELKAR LAGUNTZEKO
OHITURA HANDIA DAGO"**

Jugats Agirrek segari buruzko gako ugari eskaini dizkigu / 16

ARGAZKIA: NOAUA

**Usurbilgo Gazte
Mugimenduak
piztuko du jaietako
txupinazoa / 5**

**Ekainaren 23tik
25era San Juan
jaiak ospatuko dira
Kalezarren / 12**

**Usurbilgo literatur
sormena saritu du
Etumeta AEK
euskaltegiak / 19**

**Igande honetako
Uxue Trail proban
300 lagunetik gora
izena emanda / 20**



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

**HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA**

Matrikula epea
(ekainaren 19tik 29ra eta Irailaren 1etatik 15era)
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA
(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa. Hiritartasun digitalerako Informatika. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazioatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)
• OINARRIZKO EUSKARA
• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT
• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAH

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKUAK
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

NOAOA
BIDAIAK

Albania

IRTEERA 2023ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Antzerki Eguna, Zubietako UdaFest zikloaren baitan

Zubietan agurtzear dute 2022-2023 ikasturtea. UdaFest betean dira bertako eskolako kideak

Zubietako Eskolako guraso elkarteak antolatutako zikloko ekimen gehienak iragan astean egin zituzten. Eskulanetan jardun zuten, herri kiroletako ginkanan, gaztetxo nahiz helduen dantza taldeek urtean zehar eginikoa plazaratu zuten,

ipuin kontaketa gozatu edota apar festan primeran pasa ahal izan zuten.

Azken ekitaldia, ostiral honetarako, ekainaren 16rako iragarri dute. Antzerki eguna iragarri dute, arratsaldeko 17:00etan hasita.



Zubietako Eskolako ikasleak hasi dira ikasturteari agur esaten. ARGAZKIA: NOAUA

Ekainaren 14an, Pepa Bojoren hitzaldia Potxoenean

Jabetze eskolei buruzko hitzaldia antolatu du Usurbilgo udaleko parekidetasun sailak ekainaren 14an asteazkena, arratsaldeko 17:30etan Potxoenean. Hitzordua, ahal duntze saio bat baino gehiago eskaini izan dituen Pepa Bojo psikoterapeutak bideratuko du.

Garbigune mugikorra Txokoalden

Ekainaren 15etik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da astebetetz. Etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea du xede. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Ekainaren 22an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera mugituko dute.

'Hotsez hots 2.0' Pelexen erakusketa Sutegin ikusgai

Artista usurbildarraren 'Hotsez Hots 2.0' eskultura eta margolan bilduma ikusgai izango duzue Sutegin ekainaren 25era arte, orduetegi honetan:

- Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00.
- Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
- Igandetan: 12:00-14:00.

'Usurbil, museo irekia' ezagutzeko bisita gidatuak

Bisita gidatuak Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dute. Larunbat eta igande eguerditan, Sutegitik abiatuko dira 12:00etan eta bisitak ordubeteo iraupena izango du.

Izena aurrez eman beharko da web orrialde honetan: 650usurbilbizi.eus/agenda

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA

Abipuntuak

Egun, hainbat krisi gurutzatu dira elkarrekin, eta honi aurre egiteko ezinbestekoa da gizarte aktibo bat izatea. Horretarako, zientziak asko du eskaintzeko, baina inguruan sakon eragin nahi bada, komunikazio eraginkorren ere arreta jarri beharrea gaude. Egungo paradigma ekosozial honen aurrean, abiapuntu ederra eskaini digu Elhuyarrek. Ingurumenari buruz komunikatzeko dekalogo bat osatu baitu, eta hona bertatik abiatutako ariketa arin bat:

1) Begirada zabala: egungo krisiaren geruza oro erauzteko, ezinbestekoa da begirada osagarriak izatea. Eraldaketarako tresna eraginkor bat izatekotan, aintzat hartu beharko ditu egungo krisi egoeraren jatorri anitzak.

2) Adibide lokalak: Norberak egindako ekarpena, inguruko komunitatearentzat aberatsa izan daiteke oso. Baina hau, eskala globalean ere kokatu beharra dago, baliabide ezberdinak baliatuz, gure ekintzen neurritasuna egokituz.

3) Etorkizun desiragarriak irudikatu: egoeraren larritasunaren jakitun izan behar dugu, baina aukera hau, osatu nahi dugun etorkizun oparoa elikatzeke baliatu dezakegu. Irudikatu ezean, nekez lortuko dugu.

4) Justizia eztabaidara ekarri: ingurumen-larrialdiari heltzeak, hau eta beste hainbat gatazka eragin dituen botere-abusuari aurre egitea dakar berarekin.



"Ingurumenari buruz komunikatzeko dekalogo bat osatu du Elhuyarrek".

5) Eurozentrismoa aldendu: munduko errealitateak kontuan izan behar ditugu guretik abiatzeko ere. Gure pribilegioak eztabaidan jarri, eta inor baztertuko ez duen eraldaketa justua sustatuz.

6) Androzentrismoa ekidin: begirada maskulinoa, unibertsaltzat irauarazten badugu, talde zaugarrienak ikusezin izaten jarraituko dute.

7) Denok dugu zer egina, baina ez erantzukizun bera: soilik herritarrok, ezin ditugu sostengatu gureak ez diren ardurak.

8) Irtenbide soziala eta politikoa ere bada: teknologiak ez gaitu salbatuko.

9) Bioaniztasuna, bizitza-asegurua: guri dagokigu,

"ZAINDU DEZAGUN GURE INGURUNEA, GURE HIZKUNTZA BABESTEAREKIN BATERA"

arbasoengandik jaso dugun lurraldea egoera onean irauaraztea hurrengoentzat.

10) Osasun bakarra eta interdependentzia: ekosistemaren sarean, elkarren mendekoak dira gizakion, animalien eta ingurumenaren osasuna.

11) Zalantzan jarri: gure iruditegia aldatu beharrea gaude, ongizatea esanahitzeko.

12) Eman hitza: lekuan lekuko jakintzari hedapena eta espazioa eman.

13) Ikuspegi kritikoa garatu: aurretik jasotako ezagutzak zein zientziaren baitakoak partekatu beharrea gaude. Gure erabakiak, sentsazio eta aurreiritzietan oinarritu ez daitezten.

14) Euskaraz komunikatu, jasangarritasuna sustatzeko: hizkuntza gutxitu askok, naturarekiko harreman estua gordetzen dute. Zaindu dezagun gure ingurunea, gure hizkuntza babestearekin batera.

Larunbat honetan Orbeldi Dantza Taldearen saioa

Ikuskizuna Mikel Laboa egingo dute, eguerdiko 13:00ean. Askotariko dantzak egingo dituzte ikasturteari amaiera emateko eta poteoko ordua girotzeko.

Bestalde, irekia dute 2023-2024 ikasturterako izen-ematea. Informazio guztia haien sare sozialetan dago. Izena emateko formularioa argazkiko QR kodean duzue. Aurrez aurre egitea nahiago dutenek aukera izango dute ostiral honetan, ekainak 16, 17:30-18:30 artean kiroldegian.




Eguerdian, Mikel Laboa plazan.

Ekainaren 20an, Udajolasen guraso bilera Sutegin

NOAUA-k eta Usurbilgo Udalak uztailaren 4tik 28ra antolatuko dute Udajolas. Aisialdi ekimen honetan izena emana duten haurren gurasoei zuzenduriko bilera deitu dute ekainaren 20an 17:00etan Sutegin. Bertan udako aisialdi ekimenari buruzko argibideak jasotzeko aukera izango dute.

Ikasturte amaierako ikuskizuna Aginagako eskolan

2022-2023 ikasturtea agurtzeko ikuskizuna antolatu du Aginagako eskolak. Ekainaren 21ean asteazkena, eguerdiko 12:00etan, Eliza Zaharrean. Emanaldi honen ondoren, ikasleek oporrak hasiko dituzte.



Ekainaren 29an hasi eta uztailaren 3an amaituko dira Santixabel jaiak. NOAUA

Gazte Mugimenduak piztuko du jaietako txupinazoa

"Gazte eragileek herria egunerokoan dinamizatzeko egiten duten lanarengatik", adierazi du jai batzordeak.

Badatoz Usurbilgo festak, ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko ditugu. Egitaraua eta xehetasunak astebete barru, hilaren 23ko aldizkari eta gehigarri berezian argitaratuko ditugu. Aurrerapen gisa, ordea, Jai Batzordeak erabaki du nork jaurtiko duen txupinazoa; Ernaik, Kafe Tertulia neska* gazteen talde feministak, Xauxar txosna batzordeak eta Aztarrika Gazte Asanbladak osaturiko Usurbilgo Gazte Mugimenduak, "gazte eragileek herria egunerokoan dinamizatzeko egiten duten lanagatik".

Hautaketa deialdira 19 proposamen desberdin aurkeztu ziren.

Diseinu lehiaketa Peru Agirresarobek irabazi du
Bestalde, jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketako txu-

pelduna ere erabaki du Jai Batzordeak. Sei lan aurkeztu dituzte deialdira. Peru Agirresaroberenak jaso du, ordea, 500 euroko saria. Hala erabaki du Santixabel Jai Batzordeko bi kideek, diseinua arloan ezagutzen duten bi adituk eta kultura arloko zinegotziak osaturiko epaimahaiak. Zorionak denei!

Zikiro janerako txartelak Aitzagan salgai

Uztailaren 1eko zikiro-janerako txartelak ekainaren 16an ostirala eskuratu ahaliko dira. Aitzaga elkartearen jarriko dituzte salgai arratsaldeko 19:30ean. Askatasuna plaza aldetik sartuta erosi ahaliko dira zikiro-janerako tiketak.

Une horretan agortzen ez badira, Bordatxo eta Txiriboga tabernetan eskuratu ahaliko dira.

Haurren Eguneko ekimenetan parte hartzeko izena eman behar da

Ekainaren 30ean ospatuko da Santixabel jaien baitako Haurren Eguna eta guraso talde bat ekimen sorta bat prestatzen ari da. Izen-ematea ordea, ekainaren 16an itxiko da.



Ekainaren 16an itxiko da epea.

Izen-ematea, emailez

LH 1-4koek ginkanan parte hartzeko aukera izango dute. Helduagoek, LH 5ean hasi eta DBH2ra arte ikasten ari direnek, erronkan.

Batzuk eta besteek, ekainaren 16ra arteko epea dute izen-ematea osatzeko. Helbi-

de honetara idatzi behar da; santixabelak.umeen.eguna@gmail.com.

Haurren Eguna aldiz, ekainaren 30ean ospatuko da aurtentzen.

Oriarte institutuan bigarren eskuko testuliburuaren azoka antolatu dute

Liburuak ekainaren 23an eraman behar dira eta azoka ekainaren 26an egingo da, Oriarteren Larrekoetxe erakinean.

Mailak:

DBH3-2. Batxillergoa.

Egutegia:

- Liburuak eramateko eguna: ekainak 23 ostirala, 16:00/18:00.
- Liburuak erosteko eguna: ekainak 26 astelehena, 16:00/18:00.
- Dirua jasotzeko eguna: ekainak 27, 16:00/17:30.

Oharrak:

- Oriartekide Guraso Elkarteko bazkideek liburu azokan lehenatasuna edukiko dute. Bazkide ez direnek, 17:30etik 18:00era.
- Ez bazkideentzat liburu bakoitza 5 euro garestiago izan-

go da eta saltzerakoan 5 gutxiago jasoko dute.

- Ingeles ikasgaiari dagokionez, student book-a baino ezin da saldu, eta ez du ariketarik eginda eduki behar.
- Liburuak egoera onean egon beharko dute, puskatu gabe, eta erabilgarri.
- Liburuak deposituan utziko dira horren frogagiriarekin batera. Dirua edota saldu ez diren liburuak jasotzeko egunak taulan zehazten dira.
- Prezioa: liburuak 16 eurotan salduko dira. 15 euro jabearentzat izango dira eta euro 1 elkarereantzat.
- Dirua emateko egunean, jasotzen ez diren liburuak eta dirua Guraso Elkartean jasoko du, eta aurrez kontrakoa esaten ez bada, Guraso elkartearen ondare bihurtuko dira.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
• paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



Agurne Gaubeka, Behatokiako zuzendaria. NOAUA

Behatokia, ahalduntzean bidelagun

AGURNE GAUBEKA BEHATOKIAKO ZUZENDARIA

Etengabeakoak dira euskaldunok pairatu behar izaten ditugun hizkuntza eskubideen urraketak. Ahaldundu eta ekiten segi beharra nabarmendu digu Behatokiako zuzendariak.

Behatokia hizkuntza eskubide urraketak biltzen dituen elkarte gisa definitu dezakegu?

Irabazi asmorik gabeko fundazio bat gara. Herritarrek gugana jotzeko zerbitzu bat dute eta zerbitzu horretan detektatzen ditugunekin, hizkuntza eskubideek Euskal Herri mailan duten egoeraren erradiografia egiten dugu. Euskaraz bizi nahi duen ororen eskubideak defendatzen ditugu.

Zenbateraino ahaldundu gara eskubide urraketari aurre egiteko?

Egunerokoa herritarrek transmititzen digutena da ze zaila izaten den batzuetan ahalduntze ariketa hori egitea. Euskara ofiziala izan, eta horregatik, eskubide batzuk airtortzen zaizkigun arren, horien

bermatzean lege betebeharrak ez daude behar bezala ezarrita. Horregatik, espazio ugari ezin gara euskaraz bizi. Badirudi behin eta berriz protestatzen ibili behar garela. Askotan, jendeak dio kexa jarri eta ez diotela erantzun. Hori errealitatea da eta tamalez hor ekin behar diogu. Halere, batzuetan urraketa egin duen enpresa horrek, gero hariak mugitzen dituela nabaritzen dugu. Oso zaila da ahalduntzea, baina ezin dugu etsi.

"OSO ZAILA DA AHALDUNTZEA BAINA EZIN DUGU ETSI"

Nondik ekin geniezaioke geure eskubideen defentsari?

Lege babes badugu eta askotan ez duguna da kontzientzia. Hau da, legeak babesten gaituenaz ere ez gara kontziente eta ez dugu lege babes hori ere aldarrikatzen. Ohitura horiek gutxinaka aldatzen joatea bada ahalduntze ariketa bat. Gugana herritar askok jotzen dute, euskaraz eskatze horrek bestelako ondorioak ekarri dizkielako, eta horrelakoetan, bitartekaritza lanak egiten ditugu.

"LEGEAK BABESTEN GAITUENAZ ERE EZ GARA KONTZIENTE"

Behatokia.eus atarian sartuta, hizkuntza eskubide urraketan bilduma zabala ikus dezakegu. Lagin bat baino ez da halere.

Adibidetxo bat da. Urraketa garrantzitsuenetariko batzuk jasotzen ditugu, jendeak zertaz ari garen ikus dezan. Herritarren kexak eta lorpenak biltzen ditugu, baita lege betebeharrak izan ez arren, zerbitzua euskaraz ematea erabakitzen dutenentzako zorion mezuak ere.

Urraketan zerrenda luzean, bada behin eta berriz errepikatzen direnak?

Orokorrean, normalean zerbitzu publikoetako kexa asko jasotzen ditugu, osasungintzari lotutakoak. Arazo handiak izaten dira, batez ere, Osakidetza harremana euskaraz nahi duzun aukera ematen duelako. Baina zer gertatzen da, espezialista hurrengo astean izan edo euskaraz jaso aukeratu behar dugula esaten digutenean? Pare bat adibide izan ditugu Donostia ospitalean. Ama batek kontatzen zuen bere alabak anorexia duela eta hori tratatzeko zituen profesionaletatik ez zitzaiola euskarazkoa bermatzen, eta noski, sentimendu horiek adierazteko eta gaitz hori tra-

tatzeko berarentzat garrantzitsua zela euskara erabili ahal izatea. Behin eta berriz gertatzen dira Ertzaintza eta udaltzaingo ezberdinekin euskara erabili ezin izan duten herritarren kasuak; euskaraz artatuak izateko eskatu eta erantzun txarrak jasotzea. Baina agente horrek euskaraz dakien beste bat bilatzeko betebeharra du. Askotan herritarrei gertatzen zaie, maila horretako eskubideak ez ditugula ezagutzen, eta beste ondorio batzuen beldurrez, gaztelaniaz egitera behartzen gaituzte. Eredu publikoan askotan gertatzen dira horrelakoak, besteak beste, alor sozioekonomikoan.

Azken eremu horretan, eskubideak urratzeko askatasun gehiago dutela dirudi ezta?

Bai, ze azkenean aipatu dugu kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legea hor dagoela, baina zer gertatzen da lege hori urratzen duenean entitate edo enpresa batek? Ez dagoela ondoriorik. Orduan, oso merke ateratzen zaie guri zerbitzua euskaraz ez eskaintzea. Horretarako, lege babes handiagoa beharko genuke.

Hizkuntza eskubideei dagokienean, Usurbilen irla moduko batean bizi garela dirudi. Baina hau ere ez da irla isolatua.

Askotan herrian zer dagoen tratatzen da bakarrik, eta euskaraz bizi gaitzke. Baina usurbildarrek ere kontsumitzen dituzte multinazionalen zerbitzuak. Hor dugu Urbil ere, internetetik jasotzen ditugun zerbitzuak, online edo telefonoz jasotakoak. Baina zer eskaintza egiten zaigu euskaraz? Katalunia edo Galiza egiten ari zen inbertsioa teknologia berriak haien hizkuntzan eskaintzeko, oso atzean geratzen ari gara gu. Hor baditugu, Elhuyar bezalako erakundeak teknologia berriak euskaraz sustatzen ari direnak, baina orokorrean oso atzean geratzen ari gara. Guk hizkuntzaren corpusari



NOAUAn, Potxoenean edota behatokia.eus-en kexatu gaitzke. NOAUA

eta estatusari ematen diogu garrantzia. Herritarrek kexa asko bidaltzen dizkigute esanez ez dutela euskaratu duten aplikazioa ulertzen eta gaztelaniazkoan sartzera behartuak egoten direla.

Iaz Usurbilgo gazte mugimenduak Decathlonen erosketak euskaraz egin ahal izateko ekintza egin zuen. Nola baloratzen dituzue ekimenok?

Behar beharrezkoak ikusten ditugu. Bada bezero bezala ditudan eskubideak aldarrikatze modua ere. Halako enpresa handiek garrantzia handia ematen diote bezeroaren iritziari beti, baina mugitzea kostatzen zaie, legez behartuak daudela jakin arren.

Heldulekuak badaude, beraz, errealitate hau aldatzen joateko?

Bai baina oraindik ikusten duguna da, kartel arrazista bat balego, edo emakumeen kontrako halako kartel itsu-

si bat egongo balitz, halakoak oso azkar aldatzen dituzte. Aldiz, euskararekikoa ez.

Eskubideen mailakatzeko bat egiten ari garela iruditzen zait. Hor uste dut badugula, ahalduzko eta indarra egiteko aukera.

Gurean jasotzen ditugu hainbat kartel. Adibidez, Donostiako multinazional batena. Bazituen kanpoan izaten diren karteltxo horiek. Zazpi hizkuntzatan zituen, katalanez eta errusieraz tartean, eta bakar bat ere ez zen euskarazkoa. Eskatu genien mesedez, euskaraz ere jartzeko. Oso erraza zen, azpian beste kartel bat jartzea. Esan ziguten liskarrik ez zutela nahi, orduan erabaki zuten kartel osoa kentzea. Euskara, beraz, zer da liskar iturri?

Zazpi hizkuntzetan kartelak eduki eta Donostian euskarazkoa jartzeko halako ikuspuntu atzerakoiak badaude.

**"EUSKALDUNOK
LEGE BABES
HANDIAGOA
BEHARKO GENUKE"**

**"EUSKARAREN
UNIBERTSALTASUNA
ALDARRIKATZEN
DUGU"**

Aurrera begira, zeintzuk dira lehentasunak?

Alde batetik, herritarrekin ahalduzko saioak egiten jarraituko dugu. Ikastetxeetan ere ari gara. Usurbilen ere gustatuko litzaiguke gazte txoenekin hizkuntza eskubideen kontzeptu hau lantzea, ze beraiek ere zalantza asko dituzte eta gizartearen entzuten diren kontu batzuk barneratu dituzte. Orduan, haiekin lan-keta egitea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Bestalde, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen lege berria dator. Hor egongo gara Legebiltzarrean. Nafarroan ere bagabiltza euskaraz ikasteko eskubidearen alde D ereduen irekierak dituen trabak aldarrikatzen. Ipar Euskal Herrian ere gaztetxoek azterketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen dabiltza. EAEn ere etorriko dira, adibidez, administrazio publikoan euskararen erabilera arautzen duen dekretua... Behatokian ikusten ari gara azken urteetan atzera begiratu hori eginda, nolabait estankatzen ari garela. Euskararen espazioak mugatu ez eta kasu batzuetan atzera ez egiteko herritarren laguntza beharko dugu.

Usurbil bezalako herri batek zer ekarpen egin dezake?

Animatuko nituzke ere ohi-koetatik harago doazen pausoak ematera euskararen erabilera eta ikusten dituzten muga horien konstantzia uzteko. Pertsona askok halako egoeren aurrean burua makurtzen dute, gaizki sentitzen dira euskara erabiltzearen, eta uste dut horiek ere gizartearen plazaratzea garrantzitsua dela. Pertsonen eskubideez ari gara, berdintasunaz, ez bakarrik euskara dakitenetaz. Tresnak eta espazioak eskaini behar dizkiegu gurera datozen ere, euskara harrera hizkuntza izan dezaten. Euskararen unibertsaltasun hori aldarrikatzen dugu, pertsona guztiek izatea euskaraz bizitzeko aukera.

Ezkeltzu, parke eolikoaren arriskupean

Parke eolikoak eraikitzeak dakartzan kalteez ohartarazi zuten hilabete hasieran egin zuten bisita gidatuan.

200 metroko lau aerosorgailu, bakoitzak 25,8 metro diámetro zirkunferentzia zimentua, eta 4 metroko sakonerakoa, 121 metroko "meteorologia dorre bat", 3,81 kilometroko bidea lau dorreen artean, 5,3 metroko zabaleradun 4,72 kilometroko bideak errotak eraikitzeak kokalekura eramateko, 8,9 kilometroko tentsio ertaineko kableak lurrazpitik... Andatzaz bestalde, Ezkeltzun eraiki nahi duten parke eolikoari buruz Andatzaz-Ezkeltzu Bizirik plataformak jakinarazi dituen datuak dira honako hauek.

2022. urte hasieran izan genuen lehen aldiz, egitasmo honen berri. Madrilgo Green Capital enpresak baimena eskatu zion Eusko Jaurlaritzari instalakuntza hau eraikitzeako. Proiektu honek eragingo lituzkeen kalteez ohartarazi eta geratzeko lanean ari da aipatu herri plataforma. Hilabete hasieran bisita gidatua hau eraiki nahi duten kokagunera. Babestu beharreko "paisaia eta kultura aldetik balio handikotzat" jotzen den eremua da, Zizurkilgo HAPPO-ak jaso eta Gipuzkoako Foru Aldundian onartua duen plangintzan. "Eragotzi egiten du edozein motatako eraikuntzak eta instalazioak ezarzteza".

"Galera oso larria"

Denetariko kalteez ohartarazi du Andatzaz-Ezkeltzu Bizirik plataformak. "Lur mugimenduak egingo dituzte eta lurra artifizializatuko dute". Horrekin batera, "klima larrialdiaren izenean natur eremuak suntsitzeak arazoa larriagotu besterik ez du egingo. Babestu ditzagun natur eremuak, hain justu natur eremuek egiten baitiote aurre klima larrialdia-ri: CO2 xurgatuz eta tenperatura freskoagoi eutsiz".

Bioaniztasuna arriskuan jarriko lukeela diote. "Ezkeltzuko ekosistemaren orekari eusteko funtsezkoak diren hainbat anfibio, narrasti eta mikrougaztun bizi dira bertan", eta "hauen galera oso larria litzateke", egoera zaurgarrian edo desagertze arriskuan daudelako. Errota hauen "besoak jota" 150 espezie-tako hegazti eta hainbat espezie-tako sagusarrak hiltzeko arriskuan egongo liriateke. Tokiko abeltzaintza ere kalte-tuko luke parke eoliko honek; besteak beste, "larreen murrizte nabarmena, ganaduaren osasunean zein ongizatean eragin kaltegarriak...". Ez soilik animalia eta landareentzat, gizakiontzat ere kaltegarria izan daiteke. Errota hauek "kilometrotara zabaltzen dituzten infrauhinak sortzen dituzte". Horien eraginean denbora luzez egoteak



Ezkeltzura txangoa antolatuta zuten ekainaren 4an. NOAUA

"gaixotasun bibroakustikoa deritzona sortu dezake: besteak beste, burmuin desorekak eta "afekzio kardiobaskularren gaitzen ugartzea" ekar dezake. Eguzkia erroten atzean kokatzean eta "aspak biratzen daudenean proiektatzen diren itzal kliskatzaileen eraginak larriak dira" baita, ohartarazi dute. "Oso estresagarria izan daiteke, eta osasun-arazo jakin batzuekin ere lotzen da, hala nola, epilepsiarekin. Diskoteka-efektu honek animaliak ere zoratzen ditu, hiltzeraino iritsiz". Horrez gain, galbidean jar dezake herri honen memoria historikoa. 2020an "Ezkeltzuko lur eremuen prospekzio zabala osatu zen. Prospekzio horretan dokumenta-

tu ziren mendiaren mugak, saro harri bat, elurzuloa, balizko lubakiak eta gerra-materialak sakabanatuta zeuden eremuak". Urtebete beranduago, "lubaki bat induskatzeari ekin zitzaion: zazpi metro zulatu ziren eta 36ko Gerrarekin lotutako 3.000 elementu baino gehiago dokumentatu ziren". 2013az geroztik, "Saseta Defentsa Sistemaren barruan inoiz" ez zuten aurkitu "hain material anitz eta osoak dituen lubakirik".

Ez da bakarra

Ezkeltzukoaz gain, "15 zentral eoliko tramitatzen" ari dira EAE-n. "Gipuzkoan bakarrik 35 zentral eoliko aurreikusten dira (Ezkeltzu agertzen ez delarik), 70 bat guztira Euskal Herrian". Hainbat eragileek alegazioak aurkeztu dituzte, taldeak ere sortu dira han eta hemen. "Denen artean sarea osatzen dugu helburu bera lortzeko: Mendiak Aske!".


PARKE EOLIKOAK DAKARTZAN KALTEEZ OHARTARAZI DUTE

eskura
elkadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825



Zubietako erraustegia hizpide izan dute beste behin, Eusko Legebiltzarrean. NOAUA!

Erraustegiari lotutako auditoria eskaera

Ekopol-eko kide Gorka Buenok azken hilabeteotan ondutako ikerketa lanen berri eman du Eusko Legebiltzarrean.

EHU-ko Ekopol ikerketa taldeak azken aldiari plazaraturiko txostenen harira, EHBildu eta Elkarrekin Podemosen eskariz, aipatu taldeko ikerlari Gorka Buenok Zubietako erraustegiari buruz hilabeteotan ezagutzera emandako hainbat datu eskaini zituen iragan astean, talde parlamentario guztiak batu zituen ingurumen batzordean. Ez da gai hau ahotan hartzen duten lehen aldia; Arkaitzerrekako isurketak, ingurumen baimen bateratua edota erraustegiari lotutako gertaera gehiago ere hizpide izan dituzte lehendik.

Oraingoan, azken hilabeteotan ezagutu ditugun hainbat azalpen eman zituen. Ekopol-en arabera, kutsaduraren kontrolean eta prebentzioan urratze larriak izan ziren erraustegian 2020-21 artean: ia 2.000 aldiz gainditu zen kutsatzaileen emisioen muga eta ez zuen une horietan "hondakinen hornidura eteteko kontrol automatikorako sistemarik", 240 geldialdi izan zituen erraustegiak, haietatik 42 gutxienez, egun osokoak. Ekopol-en arabera, gainera, horretarako jarduteko eraiki arren, erraustegiak ez du ener-

gia balorizatzen, hondakinak erre baino ez ditu egiten.

Zubietako plantan izandako intzidentzien berri ez dela eman, gardentasun falta agerian utzi zuen edota ingurumen organoen aldetik erraustegiarekiko dagoen kontrol falta nabarmendu zituen, bideratu dituzten ikerlanen ondorio nagusi gisa. Testuinguru horretan, instalakuntza honi buruzko kanpo auditoria bat egitea galdegin zuen. Lanketa horretarako ezinbestekotzat jotzen du Gorka Buenok eragile sozialen eta kanpoko adituen parte hartzea.

Jarraipena egiteko deia

EHBilduren parlamentari Mikel Oterok ondorioztatu

ERAGILEEN PARTE HARTZEA EZINBESTEKOTZAT JO DU EKOPOL-EK

zuenez, hondakinen kudeaketarentzat konponbidea izan behar zuena "presaka eta gaizki egiteagatik desastre bat eraiki zuten". Bat egin zuen kanpo auditoria bat egiteko Buenok eginiko proposamenarekin. Ekopol-i Jaurlaritzak galarazitako informazioa eskuratzeko zubi gisa eskaini zuen koalizioak bere burua. "Zuk egindako ikerketak uste dugu zinez laguntzen duela etorkizunean hondakinen kudeaketa sanoagoa eta garbiagoa izaten", erantzun zion.

Argigarritzat jo zuen Elkarrekin Podemoseko parlamentari Isabel Gonzalezek. Kanpo auditoria egitea, "egoeraren azterketa inpartzial bat egiteko modu hobereana" zela iritzi zion. Dagokien moduan, "gaia fiskalizatzen eta, batez ere, erraustegiak hurbil bizi direnentzat ez duela arriskurik bermatu behar dugu".

PP-ko parlamentari Muriel Larreak Buenoren aurkezpenari buruz zioenez, "ezinegon handia eragin dit". Zalantzak zituela zioen, "erraustegiaren kudeaketa gardenaren inguruan". Informazio gehiago jasotzea galdegin zuen.

Ekopol-eko kideak emandako datuak zalantzan jarri zituen PSE-ko ordezkari Alberto Alonsok. Bere ustez, "zalantzez betetako azalpenek ezin du izan zurea bezalako ondorio kategoriko bat" aurpegiatu zion Buenori.

Ildo beretik mintzatu zen baita EAJ-PNV alderdiko parlamentari Maria Eugenia Arrizabalaga. "Jurista ez zara baina juristek baino gehiago dakizula dirudi", esan zuen. Gorka Buenok iradokitakoa delitu izan daitekeela ere adierazi zuen.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaia.eus



Kima
MASAJE LEKUA



· KIROL MASAJEA
· MASAJE
TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN
HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97



UEU, Jakin eta Usubilgo Udala, Jakin Jardunaldiaren aurkezpen agerraldian. ARGAZKIA: USURBILGO UDALA

Gizarte mugimenduez arituko dira aurtengoan

"Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak" izeneko Jakin Jardunaldian mugimenduak eta gobernantza eredu berriak hizpide izango dituzte, mahainguruek presentzia berezia izango duten hitzorduan. Egitaraua, izen-ematea eta xehetasun gehiago ueu.eus atarian.

Bederatzigarren Jakin Jardunaldia, zazpigarren edizioa ekainaren 22an eta 23an Artzabalen antolatu duten eragileak dituzue argazkikoak; UEU, Jakin eta Usubilgo Udala. Hirurek hitzordu hau aurkezteko agerraldia egin zuten iragan astean Donostian. Beste ezer baino lehen, urteotako lankidetzak gorai patu zuten. "Hemen gauden hiru erakundeon elkarlana herri-gintzaren adibide on bat da", nabarmendu zuen UEU-ko zuzendari Aitor Bengoetxeak. Erraz eta erostzat jo zuen lankidetzak Usubilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. "Bide honek erakutsi du izan daitekeela beste elkargune batzuetarako eredu", zioen. Ildo beretik mintzatu zen baita Jakin-en zuzendari Lorea Agirre. "Beti diot, ez da kasuali-

tatea Usubilen eskaintzea plaza hau, urteotan landu ditugun gaiek nolabait beste leku batzuetan ere izango dutelako islada, baina Usubilen bereziki".

Aurtengo edizioa ez da salbuespena izango. Gizarte mugimenduak eta gobernantza modu berriak hartuko dituzte ahotan. Abiapuntu gisa, EHU-ko lau taldeek herri mugimendu hauei buruz landutako hiru ikerlan daude eta haiek azaleraturiko sei datu kezkarri: gizarte harremanen desinstituzionalizazio edo suntsiketa, muturreko krisi ekologikoa eta zaintza krisia, lan baldintzen prekarizazioa eta lan eskubideen galera orokorra edota demokraziarekiko desafekzioa herritarren artean. Ikerlanok ondorioztatu dutenez, "gizarte aldaketa gero eta

neoliberalago eta globalizatuago hori gizarte mugimenduen gero eta kontrakoagoa dago eta arrazoi horregatik beragatik inoiz baino beharrezkoagoak dira gizarte mugimenduak, eskubideen defentsa eta aurrerabidea ekarriko dutelako", Agirrek agerraldian zioenez. Ikerlariok Euskal Herriko mugimenduei buruz diotenez, herri-gintza eta gizarte mugimenduen "historia luze eta sakona dugula"; gazteen presentzia txikia, eta ondorioz, belaunaldien arteko lekuko aldaketa zaila;

EKAINAREN 15ERA ARTE Matrikulazio EPEA Zabalik

liberatu eta profesionalen areagotzea; feminismoaren azaleratzea; elkarlanaren aldeko jarrera; mugimenduen eta erakundeen arteko harreman esanguratsua; eta, azkenik, migrazioa, etnia edota jatorri kulturalaz gain, beste aldaera batzuk ere aintzakotzat hartzea; hala nola, adina, klasea, hizkuntza, ideologiak, sexua, erlijioa...". Agirrek iragarri duenez, "horretaz guztiaz hitz egingo dugu Usubilen bi egunetan".

Mahainguruek tarte berezia izango dute aurtengoan, "neurri batean berriak izan daitezkeenak". Mahai beraren bueltan batuko dituzte gizarte mugimendu anitzetako ordezkariak; batean, antiarrazismoa, euskalgintza eta feminismoa elkartuko dituzte. "Elkarrekin zer egin dezakegu? Elkargune edo aliantza berrietatik zerbait atera daiteke?", galdera hauek erantzuten ahaleginduko dira. Bigarren mahainguru batean, "ekologistak, pentsiodunen mugimenduko ordezkariak eta gazte mugimendua" batuko dituzte. Bi jardunaldi egunak Mejillon Tigre kolektiboaren "Hitzez esana" ikuskizunarekin borobilduko dituzte. Artzabalgo saioek emandakoa uda ostean argitaratuko duten Jakin aldizkari monografiko batean jasoko dute.

Barne antolaketa berritzen

Gizarte mugimenduen eta erakundeen arteko lankidetzak eredu berriei mintzatu dira hitzordu honetan. Testuinguru honetan, "erronka konplexuek modu berriak eskatzen dizkigutelako" Euskal Herri mailan esperientzia berritzaile eta eraldatzaile gisa definitu duen barne hausnarketa betean dira Usubilgo udal-txean. "Xedea garai berrietara egokituko den Udalaren barne antolaketa eredu berri bat eraikitzea" da. Horregatik, udal langileentzat ere "jardunaldi hauek oso baliagarriak zaizkigu" adierazi zuen.



NOAUA

Txokolate jana Askatasuna plazan

Larunbateko Ikastola Egunaren bezperan, ostiralean, martxa hartzen hasteko txokolate jana egin zuten Askatasuna plazan. Guraso talde batek txokolatea eta bizkotxoak banatu zituen, eta ilara luzea egin zuten haur eta nerabeek. Askari aparta egiteko aukera izan zuten.



NOAUA

Dj Gorkamendirekin beroketa

Dj Gorkamendi izan zen Ikastola Egunaren bezperari musika jartzeko arduraduna. Arratsaldeko seietatik aurrera denetariko musika jarri zuen Askatasuna plazan hurrengo egunean jolasak eta ekitaldiak zituzten umeekin motorrak berotzen hasteko.



NOAUA

Ikastola Eguna ospatu zuten larunbatean

Ikastolaren Egunean, HHko ikasleek 'Zumetaren koloreak' izeneko emanaldia eskaini zuten Mikel Laboa plazan. Abestu eta dantzatu egin zuten guraso, lagun eta herritarren aurrean. Ikasturtean zehar eginiko lanak eta argazkiak jarri zituzten Sutegiko erakusketa aretoan.



NOAUA

Herri bazkarian lagun ugari elkartu ziren

Ikastola Eguneko bazkarian jendetza batu zen. Ondoren, ikastolako musika taldeen kontzertua hasi zen eta eguna agurtzeko, Ostolaza eta Narbaiza trikitilarien saioa. Haur, nerabe, irakasle eta lagunek gogotik egin zuten dantza bazkalostean.



Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariak, iazko San Juan eskean. NOAUA

Gaztelumendi anaiek girotuko dute eskea

San Juan eskea egun seinatuaren bezperan egin ohi da. Auzoko gazteak kalejiran ibiliko dira eta trikitixa doinuak, kopla zaharrak eta bertso berriak ez dira faltako. Iaz bezala, Gaztelumendi anai bertsolariek girotuko dute San Juan eskea.



Inguma oi taldea.

Oñatiko taldeen kontzertua

Oñati aldeko bi taldek girotuko dute ostiral gaueko kontzertua.

Inguma oi talde bat da eta iaz 'Buruaz beste' izeneko diskoa plazaratu zuten.

Lehen Lerroa taldea 2019an osatu zen eta punk-oi estiloko abestiak jotzen dituzte. Kontzertuaren ondoren, Fan&Go plaza taldearen txanda iritsiko da.

Ondo pasa
San joanetan!

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL info@arankaberrikuntzak.com



Ekainaren 23an ostirala, arratsaldeko 17:30ean aterako dira buruhandiak. NOAUA

Buruhandiak egunero aterako dira plazara

Jai Batzordeak plazaratu duen egitarauan ez dator, baina ostiral arratsaldean ere irtengo dira buruhandiak. Gazteak eskean dabiltzan bitartean, buruhandiek jarriko dute gatza eta piperra Kalezarren. Arratsaldeko 17:30ean hasita.



Igandean, Umeen Eguna.

Oilasko biltzailerik ez aurtengoan

Azken urteotan, gaztetxoak aritu izan dira baserriz baseri, dantzaz eta kalejiran, oilasko bilketan. Aurtengo egitarauan ordea, ez da halako deialdirik agertzen.

Jaiak asteburuko egunetara mugatu dira eta horregatik hartu da erabakia. Gauzak horrela, Umeen Egunarekin amaituko dira festak.



LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

*Ondo pasa
San Joanetan!*

ANDER
ARANZAZISTROKI

industria garbiketarako
sistema eta produktuak

667 680 236

San Juan bezperan piztuko da jai-giroa Kalezarren

Larunbatarekin egokitu da jaietako egun seinalatua. Beraz, aurtengo egitaraua asteburuko martxara egokitu da

Ekainak 23, ostirala:

San Juan bezpera

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 17:30 Buruhandiak.
- 22:00 San Juan sua, bertso-lariak girotuta.
- 23:00 Inguma eta Lehen Lerroa Oñatiko musika taldeen kontzertuak.
- Jarraian: Fan & Go.



San Juan sua 22:00etan piztuko da.

Ekainak 24, larunbata:

San Juan Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Toka jokoa eta hamai-ketakoa.

- Ondoren: Patata tortila lehia-keta.
- 16:00 Mus txapelketa (izen ematea arratsaldeko 15:30ean itxiko da).
- 17:00 Buruhandien irteera.
- 18:00 Herriko dantzarien emanaldia.
- Jarraian: sardina eta sagardo dastaketa Saizar sagardote-giaren eskutik.
- 23:30 Bide Batez taldearekin dantzaldia.
- Jarraian: DJ Javi Hidalgo, goizaldera arte.

Ekainak 25, igandea:

Umeen Eguna

- 10:00 Umeen Krosa.
 - 11:30 Jolasak.
 - Ondoren, buruhandiak.
 - 16:00 Tailerrak.
 - Ondoren, buruhandien irteera.
 - 18:30 Txokolatada.
 - 19:00 Dj Gorkamendiren eskutik dantzaldia.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



Toka, Peña Pagola parean.

Toka eta mus txapelketak egun handian

San Juan Egunean jokatuko da toka txapelketa, ohi bezala, Peña Pagola elkar-tearen kanpoaldean.

Mus txapelketa ere jaietako klasiko bat da. Karta-jokoa ordea, bazkalostean hasiko da. Arratsaldeko 16:00etarako iragarria dago baina gogoan izan izen-ematea ordu erdi lehenegoa zabalduko dela.

TXIRIBOGA

TABERNA

SANTIXABEL FESTETAN:
(Ostiral gauetik astelehen eguerdira)

MENU BEREZIAK AUKERAN:

43€

45€

47€

SAN JUAN BEZPERAN...
OGITARTEKOAK

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

2. Eskuko testuliburuaren azoka

Adi!

Dbh.3 - Dbh.4 - Batxi.1 - Batxi.2

Entrega eguna	Ekaina 23 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 26 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 27 16:00 / 17:30

Oharra: Guraso elkarteko bazkideak ez direnentzat entrega eta liburuak erosteko 17:30 / 18:00 izango da
Tokia: Larrekoetxe eraikinean

ORIARTEKIDE Guraso Elkarte



Diwan Plesidy ikastetxeokoak Usurbilen izan dira astebez. NOAUA

Bretoiak bisitan, Ikastola Egunaren atarian

Astebetetz, gazte bretoi talde bat izan da Udarregikoekin trukean, Usurbilgo hainbat etxeetan astebeteko egonaldian

Ekainaren 7an egin zion harriera Udalak Potxoenean. Egun batzuetarako bizileku zuten udalerria honen nondik norakoak aurkeztu zizkien lehenbizi Usurbilgo alkateak. Herri hau ezaugarritzen duten balore, ohitura eta beste hainbat kontu azaldu zizkien; euskara, hondakinak, erria, kultura...

Segidan, larunbat eta igande eguerdiko herri honetako kaleak dituzten kultur altxorak eza-gutzeko antolatzen diren 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatua eskaini zitzaion.

"Borroka etengabekoa da"
Ibilbidean zehar, ikasleekin etorritako irakasleetako bat,

sortzez Bilbokoa, elkarrizketatzeko aukera izan zuen he-dabide honek; Laura Rubio Sanz. Côtes d'Armor probintzian kokatua dute ikastetxea. Bretoiak ikasteko aukera eskaintzen duen bakarretakoa. Ondorioz, Laurak NOAUari adierazi zionez, herrialde osotik datoz ikasleak bertara, eta lau egunez ia bizimodu osoa bertan egiten dute. Ez dute erraza, bertako hizkuntzari eustea. "Munduko oztopo guztiak jartzten dizkigute ikasteko", azaldu digu. Are gehiago, "ia laguntzarik ez dugu jasotzen, borroka etengabekoa da".

"Asko dugu ikasteko hemen"
Bretoiak zer nolako egoera bizi duen galdetuta, "oso gutxi era-

biltzen da, oso leku gutxitan" erantzun digu. Ondorioz, "transmisioa oso zaila da", horretarako gakoak zen belau-naldian etenaldia izan baita. Eremu gutxi batzuetan babes-tu da bretoiaren erabilera, ikastetxe hau dago horien artean. Horregatik, gure artera egindako bisitatik zioenez, "hemendikasko dugu ikasteko".

Baina oztopoak ez dira gutxi. Bretoiaren aitortza faltaren adibide xume bat jarri digu. "Hirugarren mailan selektibitate txiki baten antzeko proba egiten dute. Seaskako ikastolek euskaraz egin ahal izan dituzte proba hauek. Guri ez digute bretoienez egiten uzten. Etengabekoa da borroka", alabak bretoiara ikasten dituen Bilboko irakaslearen esanetan.

Elkar ezagutzarako egonaldia
Astebeteko egonaldi hau oso lagungarria zaiela adierazi digu. "Gure ikasleek euskal kultura ezagututa, zentzu gehiago ikusten diote kultura bretoiari". Batzuen zein besteen hizkuntza eta kultura trukearako, elkar ezagutzarako ezin ekimen aproposagoa Udarregikoekin eskutik bideratu dutena.

**"GURI EZ DIGUTE
BRETOIERAZ
EGITEN UZTEN.
ETENGABEA DA
BORROKA"**

Asteburu honetan ere, errei bat itxiko dute Matia parean

Gaueko 22:00etan hasi eta igandeko goizaldeko 5:00ak ingurura arte, N-634 errepideko errei bat itxita egongo da Matia Kalezarren eraikitzen ari den zaintzadun etxebizitzaren auzunearen parean. Semaforo batek kudeatuko du trafikoa.

Greba egun berri bat iragarri dute Michelinen

Lehenago adostasunik ez bada, greba berri bat egingo dute ekainaren 19an. Lehenengo hilaren 5ean egin zuten, lantegia erabat geratu zuten, Mobilizazioak ere jendetsuak izan ziren aurreko astean.

Ekainaren 21ean, Aginagako ikasturte amaierako festa

2022-2023 ikasturtea agurtzeko ikuskizuna antolatu du Aginagako eskolak. Ekainaren 21ean asteazkena, eguerdiko 12:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Emanaldiaren ondoren oporrak hartuko dituzte.

Udalbatza berria larunbat honetan osatuko da

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetatik sortutako 2023-2027 legealdirako udalbatza berria osatuko dute larunbate honetan, hilak 17. Alkate eta zinegotzien kargu hartze ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da.

"Segalarien artean elkar laguntzeko ohitura handia dago"

JUGATS AGIRRE SEGALARIA

Belar moztu berriaren usaina ondo baino hobeto ezagutzen du gure protagonistak. Duela sei urte probatu zuen segalari lana eta Joxe Gabirondoren lezioetatik ikasi du belarra moztearen artea.

Segalaria zara. Nondik datorkizu kirol honekiko lotura? Zure etxean izan al da belarra mozteko joserarik? Ala lehena al zara?

Duela 6 urte hasi nintzen honetan, iraila edo urria aldera. Gaztelun bizi den lagun batek Joxe Gabirondok Segalari Eskola zeukala esan zidan eta aukera polita iruditu zitzaidan probatzeko. Harekin kontaktuan jarri ginen eta garai horretan denboraldi bukaera denez, Tolosara joan ginen probatzera eta gustatu egin zitzaigun. Horrela, hurrengo denboraldian ligan parte hartzen hasi nintzen Joxe Gabirondoren gidaritzapean.

Segalari aritzeak ahalegin fisiko handia eskatzen du. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu, bataz beste?

Sega oso lotuta dago urtaroei. Belarra izaten da apirilatik urria bitartean. Astean behin segalari aritzen saiatzen naiz etxean. Lursail txiki bat daukat etxean eta bertan saiatzen naiz, nahiz eta askorako ez didan ematen. Belarra ebakitzen baduzu, hasi arte zain egon beharra dago. Segalari herri kirola oso lotua dago urtaroiari eta belarraren gorabeherei, beste herri kirol gehienak ez bezala. Neguan belarrak ez dagoenez, mendira joaten saiatzen naiz edota igerilekuan igeri egiten. Alderdi fisikoa lantzen dut, batik bat. Ordubeteko saioak izaten dira geldialdiekin eta abar. Gerriko minak ohikoak



"Maiatzean eta ekainean izaten da liga eta hiru saio izaten dira". NOAUA

izaten dira, belarraren altueraren arabera gehiago kostatzen da eta pisu gehiago hartzen du. Zoruak ere badu bere eragina, eta hori dena kontuan hartu beharra dago.

Jaialdiak eta txapelketak noiz izaten dira?

Ligan zehaztuta dauzkagu zelaiak eta belarraren tamaina bat kalkulatzeko aukera izaten dugu lehenago ere gure entrenamenduetan kontuan

hartzeko. Proba txiki bat ere egiten da belarra aztertzeko. Maiatza eta ekainean izaten da liga eta hiru saio izaten dira. Aurten lehentxeago izan da uztailaren hasierarako

"LUR SAIL TXIKI BAT DUT ETXEAN ETA BERTAN ENTRENATZEN DUT"

izen-ematea egin beharra izan dugulako Europako Txapelketarako. Ligako bost emakumezko eta hamar gizon sailkatzen dira Europako Txapelketa horretarako. Horrez gain, aurten bigarrenengo ekainean egin dugu Emakumezko Bina-kako Segasail Txapelketa. Kasu horretan, erreleboka egiten dugu lan, ligan baino sail handiagoetan. 300 metro karratu ebaki behar izaten ditugu. Mailaka edo lerroka neurtzen dugu, eta beraz, maila bat egiten du batek, eta bitartean besteak deskantsatu egiten du, eta alderantziz.

Euskal Herriko kirol bat da soilik ala nazioarteko txapelketak ere egiten al dira?

Liga bat bakarrik dago eta ondoren Europako Txapelketa izaten dugu. Telebistan gutxi ikusten den kirola da eta ez-jakintasun handia dago, horren ondorioz. Saiakerak egin ditugu telebistarekin saioen bat emititu zezaten, baina ez dugu lortu. Europako Txapelketako antolatzaileak sei nazio izaten gara: Euskal Herria, Austria, Suitza, Hegotiro, Babaria eta Eslovenia. Gonbidatzen ditugu beste herrialde eta nazio batzuk ere parte hartzera. Aurten Eslovenian izango da uztailako azken igandean. Bi urtetik behin izaten da eta hemendik lau urtera berriz ere gurean izango da txapelketa, 2027an. Nik joan zen urtean hartu nuen parte Babarian taldekakoan eta bigarren egiten gure emakumeok. Txandaka izaten da; urte batean banaka eta hurrengoan taldeka.

Sega munduan, lehiakortasun handia dago segalarien artean ala lagun giroan aritzen zarete?

Emakumezkoen kasuan, eta gizonen artean ere hala izango delakoan nago, elkar laguntzeko ohitura handia dago. Lehia daukagu txapelketak lehiatzeko direlako, baina laguntasuna da nagusi. Txapelketak ere ahalik eta parekatuenak egiten saiatzen gara.

Giro oso sanoa daukagu gure artean.

Zein aholku emango zenioke belarra mozten hasteko tentazioa izan dezakeen gazte bati?

Probatzeko aukera daukagu beti eta hori aprobeitza deza-tela. Nazioarte mailan lehiatzen gara gu eta Euskal Herriko modua ere egiten dugu. Azken modu honetan, denbora luze batean ahalik eta kilo gehien moztea da helburua eta horrek jendearen laguntza eskatzen du. Gulehiatzen garen moduan eremu txiki bateko belarra ebaki behar da, emakumeen kasuan 35 metro karratu dira, ahalik eta modurik azkar eta txukunenean. Horrek bi edo hiru minutuko lana eskatzen du, ez gehiago. Animatu eta probatzea merezi du. 10 urterekin has zaitezke eta bizi osoan zehar belarra moztu. Gurean zaharrenak 77 urte ditu. 10-16 urte bitartean adin-tarteak handiak dira eta ligatxoak antolatzen ditugu bi urteka. Gainontzekoan, 16 urtetik gorako emakume guztiak batera ibiltzen gara ligan. Europako txapelketarako 16-30 urte bitarteko hiru emakume sailkatzen dira eta zaharragoenen artean bi. Gizonen artean, oso helduak ere bada-biltza segan eta liga berezi bat egitea erabaki dute eurentzat ere. Gizonezkoak tradizioz aritu dira zaharrenak, batez ere, emakumezkoetan zaharrenak 50 urte inguru ditu. 10 emakumek parte hartzen dugu egun.

Uda partean erakustaldi ugari izaten dira. Inoiz aritu al zara Usurbilen sega moztzen?

Ez, 2020an Santixabeletan ekitaldi gutxi batzuk izan ziren pandemia zela medio eta data



"Segan beti laguntzaile batekin ateratzen gara belarra ebakitzera". NOAUA.

aldaketa batzuk ere tarteko izanik, ezin izan nuen parte hartu ez zitzaidalako ondo etortzen. Udarregi Ikastola atzeko lursailean egin zuten. Zaila da herri barnean eremu egokiak aurkitzea horrelako lanetarako. Nahiko eremu laua eta zabala behar da.

Herri kirolak eta sega oso maskulinoak izan dira. Badirudi gauzak aldatzen ari direla. Eta zaleak, herri kiroleko zaleak, zer no-egun.

"SEGALARIAK NAZIOARTE MAILAN LEHIATZEN GARA"

lako harrera egin die emakumeei? Ze inpresio duzu zuk?

Gizonak gehiago dira emakumeak baino. Azken urteetan gizonetako kopuruak beherantzako joera hartu du eta emakumezkoenak, berriz, gorako joera hartu du. Duela pare bat urte oso antzeko kopuruetan geunden eurekiko. Baserrietan tradizionalki gizona aritu da belarra mozten eta emakumea eskuarearekin biltzen eta horren eragina nabari zen duela

"AZKEN URTEOTAN GORA EGIN DU EMAKUMEZKOEN PARTE HARTZEAK"

hamarkada batzuk, baina orain ez horrenbeste. Nik belarra mozten daramatzadan urteetan oso antzeko kopuruak ikusi ditut eta trataera ere oso ona.

Zure jardueran, zer nolako garrantzia dute entrenatzaileek?

Garrantzitsua da hasieran entrenatzailea. Joxe Gabirondorekin hasi nintzen eta gerora neure kaxa aritzeko ohitura hartu dut. Segan beti laguntzaile batekin ateratzen gara belarra ebakitze horretan txukuntasuna bermatzeko. Beti daukagu norbait ondoan, eta horrek ere laguntzen du teknika hobetzen eta dena txukun uzten.

Laburrean

Zenbaki bat: 5.

Kolore bat: Urdina.

Kirolari bat: Alaitz Imaz eta Joxe Gabirondo segalariak.

Txapelketa bat: Emakumezkoen Binakako Segasail Txapelketa.

Film bat: 'Suro'.

Liburu bat: Leire Iburgurenen 'Petare'.

Abesti bat: 'Herria eta hizkuntza' (Mikel Laboa).

Sare sozial gustukoenak?: Instagram eta Facebook.

Usurbilgo txoko bat: Aranerekako bidexka.

Santixabelak ala Sagardo Eguna? Sagardo Eguna.

Oporretarako toki bat: Boltaña (Huesca).

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PARRIKAZA JATEKOA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Gazttxoen euskalduntzeko errefortzu programaren sustatzaileak aste hasierako agerraldian. NOAUA

Euskara errefortzua gazttxoentzat

Euskalduntze beharra duten gazttxoei zuzenduriko eskolaz kanpoko errefortzu programa antolatu dute Udalak eta hiru ikastetxeek urritik aurrera. Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak dinamizatuko du.

Euskararen ezagutza eta erabilera gazttxoen artean sustatzeko egitasmo berria iragarri dute Usurbilgo Udalak, herriko hiru ikastetxeek eta zerbitzu berri hau dinamizatuko duen Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak; euskara errefortzuko programa, gure artera beste sorteri batzuetatik bizitzera etorritakoen nahiz Usurbilen bizi arren, euskalduntzeko beharra dutenen HH5-DBH4 arteko gazttxoentzat. Azken urteotan, nabarmen aldatzen doan herriko eta ikastetxeetako errealitate soziolinguistikoari erantzuteko abiaraziko dute egitasmoa urritik aurrera.

Helburu bikoitza du egitasmo berri honek Usurbilgo alkatearen esanetan; "batetik, euskara ez dakiten ikasle etorkinei berariazko laguntza es-

kaintzea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak lehenbailehen eskura ditzaten, eta bestetik, ikasle horiei hezkuntza sisteman sartzen laguntzea". 20 bat lirateke herriko ikastetxeetan "ez euskara ez gaztelania" ez dakiten gazttxoak, eta orohar, "gisa honetako programa baten beharra duten 70 ikasle inguru daude".

Alderdi ludikoa, ardatz

Aniztasuna modu demokratikoan kudeatu eta "aniztasuna balio positibo bezala proiektatzeko" helburuz, Udalak duela urte batzuetatik jorratzen ari den jatorri aniztasuna eta bizikidetzaren lanildoaren baitan kokatzen du ekimen hau. Jada Aniztasun Kontseilua eta udal barruan zeharlerro gisa lantzeko taldea osatu edota laster aurkezte-

koak diren harrera protokoloa landu dute.

Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak dinamizatuko du errefortzu programa hau. Zegaman edota Beasainen antzeko egitasmoak kudeatu izan ditu aurrez. Erroka nagusi bat izango du: "haurren euskalduntze prozesu horretan laguntzea", eta bide horretan, "bizipen berri batzuk eskaintzea". Dinamika parte hartzailea izango dela aurreratu du, "alderdi ludikoa ardatz izanda, ahozkotatasunaren lanketan zentratua" egongo dena. Tal-

URRIAN ABIARAZIKO DUTE PROGRAMA BERRIA

de bakoitzaren beharrei egokitzen ahaleginduko dira. Horregatik, talde txikiak osatzea proposatzen dute HH5-DBH4 arteko gazttxoekin, gehienez 10-12 lagunekoak, gazttxo bakoitzaren beharretan egoki eragiteko. Astean hiru ordukoa, ordu eta erdiko bi saiotan banatua. Urriaren abiaraziko dute doako programa berri hau.

Lanerako bertako hezitzaileak nahi dituzte, herria eta inguruak ezagutuko dituztenak. Kurrikulumak uztailearen 2ra arte bidali ahalgo dira. Erabiltzaileek, aldiz, irailaren 18tik 29ra bideratu beharko dute izen-ematea, nork bere ikastetxean. Herriko kanpo ikasten dutenek Udaleko Euskara Sailera jo beharko dute. Egitasmoa ez dago soilik Euskal Herriko kanpo datozen gazttxoei zuzendua, baita bertan jaio baina euskalduntze beharretan direnei ere.

Modu esperimentalean jarri nahi dute martxan programa hau, urtebeterako. Hala hitzartu du Udalak ekimena dinamizatuko duen Lasarte-Oriako Ttakun kultur elkartearekin. "Gero ikusiko da zer egokitzapen egin ahal zaizkion etorkizunari begira".

Ezinbestekoa ikastetxeentzat

Ikastetxeek eskertu egin dute ezinbestekotzat jo duten programa hau. Lankidetzaren alde egin du Udaregi ikastolak, "elkarlanean euskara zabaldu eta bermatzen". Zubiako eskolakoentzat, "euskara zaintzeko" eta afektiboki geure hizkuntzara hurbiltzeko espazioa eskainiko du egitasmo honek. "Ahozkotatasunaren indartzea, ulermena...", Aginagako eskolako zuzendariaren esanetan. Eta hori bermatuta, "aurrera doazen neurrian zailtasun gutxiago izango dituzte". Udalak bere aldetik, programa honen lanketa ahalbidetu duen hezkuntza mahaiari segida emateko prestasuna agertu du.



1. Etumeta Literatura Lehiaketako sarituak, ekainaren 7an Txiribogan eginiko ekitaldian. NOAUA

Usurbilgo sormena saritu du euskaltegiak

1. Etumeta Literatura Lehiaketako sari banaketa egin zuten ekainaren 7an Txiribogan. Esker oneko agertu dira antolatzaileak, estreinakoz egindako ekimenak izan duen harreragatik. Euskaltegia herrira gerturatzeko beste bide bat da honakoa haien esanetan.

Jakinarazi dituzte Etumeta Literatura Lehiaketako irabazleak. Mikel Rezola Garcariaren "Ledezek larrua jo nahi du" lanak irabazi du euskaltegiak estreinakoz antolaturiko ekimena. Bi aipamen ere saritu dituzte: Olatz Allur Maizen "Mutu" eta Uxue Fernandez Lasaren "Amona Antoni" sortze lanak. Parte hartzaileak, halere gehiago dira, argazkian ageri dira kide batzuk. Bistan denez, inor ez zen esku hutsik geratu, ekainaren 7an Txiribogan egin zuten sari banaketan.

Pozik ziren sarituak, pozarren baita Etumeta AEK euskaltegiko antolatzaileak ere. 650 hitzeko ipuin laburrak sortzeko proposamena egin zutenean negu partean, ez zuten espero estreinakoz antolaturiko lehiaketak izango zuen harre-

ra. "Espero baino hobea" izan dela adierazi digute antolatzaileek. "Beldur ginen, euskaltegi barruan geratuko ote zen ekimena, herriak parte hartzeko ekimena baitzen. Zorionez, erantzuna ederra izan da". Euskaltegiko ikasleek, herrikideek, adin nahiz genero ezberdinetakoek parte hartu dute; haur nahiz helduentzako ipuin laburrak sortu dituzte. "Pare batek ilustrazio eta guzti bidali ditu ipuinak. Jendeak lan egin du eta gogoz hartu du lehiaketa". Ondorioz, epaimahaiak ez du lan makala izan. "Laguntza handia izan da guretzat". Literatura munduarekin oso lotuak dauden hiru herrikide ezagun, Yolanda Arrieta, Ugaitz Agirre eta Ixabel Agirresarobe aritu dira zeregin hauetan. Etumeta AEK-koek jasotako lanak helarazi

zizkieten hiru sortzaile hauei. "Haiek ez dute jakin lanak norenak ziren". Modu horretan, edukiak objektibotasunez baloratzea bermatu nahi izan dute. Esker ona adierazi diete epaileei nahiz egitasmo honetan parte hartu duten guztiak.

Herriari sendoago lotzeko

Txapelketak bi helburu zituen; batetik, euskaraz idazteko herrian egon daitekeen zaletasuna azaleratzea, egileek duten idazmen mailaz jabetu eta gordean geratzen diren

IRAILEAN IREKIKO DUTE IKASTURTE BERRIRAKO MATRIKULAZIOA

sortze lan ederrok partekatu ahal izatea. "Epaileek esan digutenez, nahiko txukun idatzitako lanak jaso dituzte; ez soilik sormenaren aldetik, baita idazkeraren eta euskararen aldetik ere". Idazteko zaletasuna euskararekin lotzea sustatzea zen Etumeta AEK-koen beste helburuetako bat, eta haien jarduna kanpora zabaltzea, euskaltegiak herrira begirako ekintza ere izatea nahi zuen. "Gure jardunak ez du zentzurik herriak parte hartu gabe. Horregatik, herriko parte izan behar dugu".

Lehiaketa honek bide horretan jarri ditu. "Ekimen honek ireki dezala lehenengo ate bat herriarekin kontaktu errazago bat izango dugula. Asko dugu eskaintzeko herriari eta horretarako harreman bidea egitea, horixe zen helburua". Egunerokoan sustatzen duten euskalduntze horretan, "beste bide bat" da jarraipena izateko sortu duten literatura lehiaketa.

Etumeta AEK-ren eguneroko jardunari batu zaion beste bide bat aipatu moduan. Ikasturte amaiera honetan, hilabeteok emandakoaren balantzea egiteko eskatu diegu euskaltegikoei. "Ikasturte oso emankorra izan da. Duela ez dakigu zenbat urteetatik hainbeste talde ez dugu izan. Maila guztiak ditugu, A1etik C2raino". Horrez gain, aipatzekoak baita jubilatuekin edota etorri berriekin bideratu duten lanketa. "Harritu egiten dira hemengo hainbatek euskaraz ez dakitelako". Behin prozesuari ekinga, "zaila ez dela harritzen dira. Oso azkar harrapatzen dituzte elkarrizketa xumeak". Haiekin egin bezala, aurrera begira, herritarren beharren arabera "eskaintza zabalagoa egiteko gogoz gaude". Jatortasunari buruzko ikastaro bat diseinatzen ari dira adibidez. Irailean zabalduko dute ikasturte berrirako matrikulazio epea.

300 lagundik gora izena emanda, igande honetako Uxue Trailerako

Ostiral gaueko 22:00etan itxi-ko dute antolatzaileek igande goizean egingo den 3. Uxue Trail lasterketa solidariorako izen-ematea. Dagoeneko, antolakuntzak berri eman duenez, 300 lagun baino gehiago apuntatu ziren iragan asterako.

Ekimen honen bidez, herrikidea dugun Uxue Martin gazteak duen Phelan-McDermid izeneko gaixotasun arraroa ezagutarazi nahi dute, sentsibilizatu eta eritasun honen ikerkuntza sustatzeko laguntza bildu. Dortsal solidariora ere atera dute propio.

Ekainak 18, igandea

- 9:00 Trail luzea (20 km): labur.eus/pfQ4V
- 9:15 Trail motza (11,5 km): labur.eus/K7c5B
- 10:00 Paseoa (5,5 km): labur.eus/Yw7vt



Lasterketa goiz partean hasiko da.

- Dortsal solidariora: Diru ekarpena egiteko aukera.

Izen-ematea:

Ekainaren 16ko gaueko 22:00k arte egin daiteke, kronoak.com atarian.

Informazio gehiago:

22q13.org.es.

Eskubaloi Eskolan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du

LH5 eta LH6ko hurrek hartu ahalko dute parte Eskubaloi Eskolan. Entrenamenduak astean behin izango dira, asteartean 18.30etik 20.00etara, eta hilabeteetan partida bat edo bi.

Urteko kuota, 50 euro. "Anai-arreba bat baino gehiago izanez gero, 25 euro ordain-

du beharko ditu bigarren jokalariek eta ondorengok".

Epea. ekainak 30

Usurbil KE-ko kideek aditze-ra eman dutenez. Izen-ematea ekainaren 30ean amaituko da. Esteka honen bitartez egin behar da:

<https://labur.eus/hhPpV>

Usurbilgo pilota txapelketako final-erdiak asteburu honetan jokatuko dira

Ekainak 15, osteguna, 18:00

Pala txapelketa, finalerdiak:

- Murua-Zubiaur/Ibargoien-Galarraga.
- Aranburu-Txomin/Errekondo-Sagastume.

Ekainak 16, ostirala, 18:30

Kadeteen txapelketa:

- Alejo-Errasti/Aburuza-Pagola.
- Izagirre-Oñate/Perurena-Elola.

Ekainak 17, larunbata, 11:30

Nagusiak, final-erdiak:

- Alberdi-Irazustabarrena/Orbegozo-Albeniz.
- Amiano-Sorondo/Olaizola-Aranguren.



NOAUA!

Aritz Mendiluze, txapeldunordea

Gipuzkoako eskolarteko nesken pilota txapelketako finala jokatu zen aurreko astean Tolosan. Aritz Mendiluzek txapelketa bikaina jokatu du eta horri esker iritsi zen finalera. Laia Gastiaín pilotaria gailendu zen; 18-16 azken emaitza.



NOAUA!

Usurbil FTko jubenilak, kopako garaileak

Beste garaipen bat Usurbil Futbol Taldekoentzat. Jubenil mutilak Kopako txapelketa irabazi zuten aurreko asteburuan. Infantil mutilak aldiz, txapeldunorde izan ziren Arrasaten jokaturiko finalean.

MERKATU TXIKIA

ERREBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igogailua, bainugela, sukaldea eta itzarongela barne. WiFi eta elektrizitatearen barne. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636 711 514.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harrermentarako: 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. Ginteresik baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz lanean aritzeko pertsona baten bila gabilta. Interesatuok hona deitu: 634 401 171

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710 Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. Interesik baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 695 783 202.

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680 483 164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten espezializazioa. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

BESTELAKOAK

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. Interesatuta bazaude deitu telefono zenbaki honetara: 644 619 358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOAK



Sebero Portullarrume Azkue
Ekainaren 6an hil zen, 75 urterekin.



Esteban Roteta Labaka
Ekainaren 10ean hil zen, 85 urterekin.



Maritxu Urkia Arruti
Ekainaren 11n hil zen, 96 urterekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 15	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 16	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 20	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 21	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 25	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Amets!

Ekainaren 12an 6 urte bete zenituen!
Oso ondo ospatu genuen!!
Txokolatzeko 6 muxu handi handi,
familia osoaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurra bakarrik iragarriko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 16

ZUBIETA UdaFest 2023

Antzerki eguna.

17:00 Errebote plazan.

USURBIL Zumarteren ikasturte amaiera

Zumarte Musika Eskolako atarian formatu txikiko taldeak.

18:00 Zumarte Musika Eskolan.

LARUNBATA 17

USURBIL Udalbatza berria

Alkate eta zinegotzien kargu hartze ekitaldia.

12:00etan Udaletxean.

USURBIL 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 euro, 650usurbilbizi.eus atarian.

12:00etan Sutejin.

USURBIL Zumarteren ikasturte amaiera

17:30 Kalejira, frontoitik abiatuta.

18:30-21:30 Kontzertuak

frontoian: Zumartekoak, Orbeldi

Dantza Taldea, abesbatzak.

IGANDEA 18

USURBIL 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 euro, 650usurbilbizi.eus atarian.

12:00etan Sutejin.

USURBIL Uxue Trail lasterketa

Izen-ematea: kronoak.com.

9:00etan frontoitik.



Xabier Peñalver 'Revolución, resistencia y memoria' gidaren egilea da.

Bestelako turismo bati buruzko hitzaldia Aitzagan

Xabier Peñalverrek gida moduko bat plazaratu zuen iaz eta argitalpen honi buruz arituko da ostiralean Aitzaga elkartearen.

"Euskaldunok munduko beste herrialdeak eta bazterrak ezagutzeko jakinmina eta joera dugu", diote Aitzaga elkarte kideek. "Baina, turismo merkaturako operadore handien eta publizitate kapitalistaren amaraunean harrapatuta, oharkabean, haiek bideratzen gaituzten toki, herri, ingurune, museo edota ondare historikoak ezagutzera mugatzen gara".

Honen ondorioz, "maiz gertatzen da, herrialde horretako historia, gertakizunak eta lekuak hobeto ulertzeko oso gertu egon daitezkeen beste

hainbat gauza interesgarri ezagutzeko aukera galtzea".

Ostiral honetan, Aitzagan

Turismo konbentzionaletik harago gauza asko egon daitezkeela, alegia. Urteetan pista horien bila aritu da Xabier Peñalver. Bildutakoarekin gida bat osatu eta Txalaparta argitaletxearen bitartez plazaratu du: *Revolución, resistencia y memoria - Patrimonio de la humanidad*.

Xabier Peñalver Aitzaga elkartearen izango da ostiral honetan. 19:00etan hasiko da hitzaldia.

Erakusketa Artzabalen

Rudy margolariak 'Bidasoatik Oriara' izeneko erakusketa ipinia du Artzabalen. Plasma-olioaren teknikarekin eginak daude gehienak baina beste teknika batzuk ere lantzen ditu, hala nola, gel tintaz egindako marrazkiak edo abstrakzio geometrikoak.

Artzabalen batu dituen obrak taula eta mihiseen gainean sortutakoak dira.

Zumarteren deialdiak

Ekainak 16 ostirala

• 18:00-20:00 Formatu txikiko kontzertuak eskola atarian.

Ekainak 17 larunbata

• 17:30 Zumarte Musika Eskolako ikasleen kalejira, frontoitik abiatuta.

• 18:30-21:30 Kontzertuak frontoian. Zumarte Musika Eskolako ikasleak, abesbatzak eta Orbeldi Dantza Taldeko kideen eskutik.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO

9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

943 37 39 95

Bodega:

943 36 45 97



www.sidrassaizar.com



Ondo
Pasa
San
Joanak!



Olivi

Erretegia  Asador

Saizar baserria, kale-zahar 39

USURBIL

Erretegiko erreserbak:

943 788 448

reservas@asadorolivi.com

www.asadorolivi.com



Ekainaren 19tik aurrera

ORDAINDU
GERTU

TXARTELAREKIN
ETA AURREZTU

%10

**EROSKETA
GUZTIETAN**

Gehienez **10 euroko**
deskontua erosketan
bakoitzeko

